

Arroz urdina? Bai, Malasian!

2013/11/11

Aurreko astean, École Centrale de Nantes unibertsitateak koordinatzen duen Erasmus Mundus proiektu berri hau abian jartzeko bilera ospatu zen Kuala Lumpurren, Malasian, <http://www.interweave-ema2.eu/>. Proiektu honek Europa eta Asiako unibertsitateen artean mugikortasuna ahalbideratuko du bi norabidetan.

Hain zuzen ere, europar ikasle zein langilegoak hilabete bateko gutxieneko egonalditik 3 urteko gehienezko egonaldia egiteko aukera izango dute, Ko-koordinatzailea den Malasia, Txina, India, Tailandia, Bangladesh, Nepal, Butan eta Indonesiako unibertsitateetan besteak beste. Elkartrukatzeak aukera izateaz gain, proiektu honek titulazio osoa atzerrian egiteko aukera eskainiko du, horrela asiar unibertsitateko titulua eskuratuz.

Informazio gehiago proiektuko web orrialdean edota Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Nazioarteko Harremanetan izango duzue. Beka eskatzeko lehenengo deialdia 2014ko urtarrilaren 3tik martxoaren 3arte egongo da zabalik. Izapide guztiak "on line" bidez egin beharko dira.



Erasmus Mundus Interweave